itzulpena: Joannes Jauregi

Yannis Ritsos

Munduko
Poesia
Kaierak

Yannis Ritsos

itzulpena: Joannes Jauregi

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Yannis Ritsos
© itzulpenarena: Joannes Jauregi
© edizio honena: Susa

2018ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Engaiamendua izaten da Yannis Ritsos poetaz ari garela sekula faltatzen ez den hitza. Egokitu zitzaion mundua eta haren aurrean hartu zuen jarrera kontuan izanik, harritzekoa ere ez da. Greziako alderdi komunistako kide izanik, Ioannis Metaxas jeneralaren 1936ko estatu kolpearen ondotik, Ritsos bera eta bere obra esetsiak izan ziren. Ez zen hura izan, baina, Greziako Gobernuak jazarri zuen garai bakarra; hiru hamarkada geroago ere, jada poeta aski laudatua zela, Koronelen Diktadura deitutakoaren errepresioa pairatu zuen: kartzelaldiak, etxe barruko arrastatzeak...

Ritsosen obran, bada, gorabehera makur horien eragina agerikoa da, hala esplizituki auzi politikoak agertzen direlako, nola, zentsura ekidin nahian, errepresio garai batzuetan beste bide poetiko kriptikoagoak hartu zituelako. Lehenengoetako adibide behinenetakoa dugu *Epitafio* izenekoa. Metaxasen gobernuaren kontrako ikasle-manifestaldi batean zenbait gazte hil zituen Poliziak eta haietako baten amaren argazkia —semearen gorpua besotan zuela— zabaldu zen komunikabideetan hurrengo egunetan. Argazki hark bultzatuta idatzi zuen gerora bere poema ezagu-

nenetakoa bilakatuko zena. Konpromiso politiko komunista hura gorabehera, eta nahiz eta XX. mendearen azken laurdenean molde horretako poesiaren sonak behera egin zuen poesia-kanonean, nazioarteko ospea eskuratu zuen. Ez alferrik, Greziako poeta moderno handienen artean kokatu ohi du kritikak. Euskaraz apenas genuen itzulirik orain arte haren lanik, Koldo Izagirrek eta Iñigo Aranbarrik itzulitako zenbait poemaz landa, eta orain haren ibilbide osoa hartzen duen antologia aurkezten digu Joannes Jauregik grezieratik zuzenean euskaratuta.

Obra oparoa ondu zuen Ritsosek, entseatu zituen neurri eta forma poetikoei dagokienez nahiz baliatu zituen poesia-genero ezberdinei dagokienez: lirika, bakarrizketa dramatikoak, poema epikoak... 1966an argitaratu zuen *Romiosine* Greziako ereserki nazional ezkutua bilakatu zen Koronelen Diktaduraren pean debekaturik geratu zenean. Izan ere, *Epitafio*rekin eta *Udaberriko sinfonia*rekin egin bezala, kanturako moldatu zuen Mikis Theodorakis musikariak, eta halaxe zabaldu zen berehala publikoaren artean diktaduraren kontrako kantu gisa.

Arestian aipatutako obra zabal horrek bestelako ezaugarriak ere gordetzen ditu, hala nola, aro mitolo-

gikotzat ezagutzen den aldia, zeinetan tradizio greziar klasikoaren arrastoa nabaria den. Horren adibide genuke *Lehen plazera*, tradizioa eta lekua artez uztartzen dituena. Izan ere, paisaia mediterraneoek ere presentzia handia dute Ritsosen poemetan —*Romiosine* bertan urrutira joan gabe—, eta harekin loturiko sinboloak —olibondoak esaterako— errepikariak izaten dira. Poeta liriko onenen antzera irudi eder askoak ontzeko gai baitzen Ritsos: *"Egunsentiak hatzekin biltzen dizu arima, zigarreta bat balitz bezala, / buruz gora etzanda erre dezazun / ezkerreko eskua gau izarratuan bustiz*".

1909an jaio zen Monemvasia-n eta 1990ean hil. XX. mendearen testigu aparta izan zen, lehen aipaturiko gorabehera politikoez aparte, II. Mundu Gerran Nazio Askapenerako Frontearekin borrokatu baitzen nazien kontra. 1956an eskuratu zuen lehen literatura sari handia, Greziako Poesia Sari Nazionala. 1977an Lenin saria eman zioten, eta Nobel sarirako kinieletan urte luzez egon bazen ere, azkenean gaberik geratu zen, beste poeta eta idazle handi asko bezalaxe, bestalde.

BEÑAT SARASOLA

Epitafio

Tesalonikako langile
heroikoen omenez

Tesalonika. 1936ko maiatza. Kalearen erdian, ama bat negarrez ari da seme erailaren gainean. Haren inguruan eta gainean hausten dira manifestarien olatuak, trumilka, zalapartaka; tabako langileak greban. Amak auhenka segitzen du:

I

Umea, erraien errai, nire bihotzaren bihotz,
bakardadeko loretxo, patio idorreko mirotz,

itxi zaizkik begitxoak, eta ja ez haiz mugitzen,
ez al duk nire malkorik, nire saminik aditzen?

Ene haurtxo, hik sendatzen hidan beti arrangura;
bahekien zein zen nire betazalpeko mentura.

Ez al nauk kontsolatuko, lanbropetik aterako,
nire barnean bazkatzen den zauria antzemango?

Ene haurra, eskuetan ura ekartzen zidana,
ez al nauk dar-dar ikusten, kanabera bat bezala?

Hemen, kaleen erdian, tximak ditiat askatzen,
haiekin hire gorputza, lore ihar bat, estaltzen.

Musukatzen diat hire ezpain isilen izotza,
eta iruditzen zaidak hire haserre mingotsa.

Ez haiz mintzo; gaixo honek bularrak ditik ireki,
eta azazkalez urratu, hi baihinduten edoski.

VI

Maiatzean partitu haiz, galdu haut maiatz-egunez;
udaberrizale hintzen, gora joaten hintzenez

eguteraren aldera; handik, hire so garbiak
pozarren jezten zitian unibertsoko argiak.

Banan-banan erakusten hidan, hatza luzaturik,
munduak zenbat zuen on, arrosa eta gandutik:

urrun, distira zen itsasoa, olio mardula,
eta zuhaitz-mendietan mozten zen zeru azula;

gauzak, txiki eta xume, sasi, txori, inurri,
bi pegarren izerdi diren diamante-harri.

Baina, ume, erakutsi arren lur eta izarrak,
argiagoak zituan hire begi itsastarrak.

Kontatzen baihidan gozo, gizon-ahots epelean,
hainbeste gauza, nola maskorrak dauden
hondarrean.

Esaten hidan edertasun hau guretzako zela,
baina orain, itzali haiz; itzali sua, kandela.

IX

Goi aingeruen babesa, ai, ene Ama Birjina,
emango zeniokeen haur honi, ama bazina.

Ai, Jainko, jainko bahintz, eta gu hire seme-alaba,
saminez hartuko huke mundutar txarron dardara.

Justua bahintz, eta bahu mundua justu bana,
balukete txori-haurrek ase arterako jana.

Umea, mintzo zelarik hire aho jakintsua,
halaxe ematen zidan beti-beti aholkua:

“Uso bat baita bizitza, bazkatzen da gure eskutik;
guk, berriz, eskutan apenas dugun ogi apurrik.

Lurrari eusten diogu —beso ahulon bertute—
ta jainkoek, txorimalo, ugazaben antza dute”.

Haurra, ez diat gehiago ez bozkario ez federik;
gure azken kriseilua ez dago izekitzerik.

Nongo argitan ireki ditzaket orain eskuak
suak bero ditzan nire esku-ahur izoztuak?

XVII

Etzan haiz, ene izarra, kreazioa duk etzan;
ekiak bildu dik sua urre beltzezko matazan.

Jendea bultzaka zoak, armadak naik ni zanpatzen,
baina nire begiek ez haute, ez, abandonatzen.

Hara, orain altxa naitek: hau da jende zalaparta!
Umea, hire ondotik ezingo naitek aparta.

Eta pozten naitek, mintzo baitituk hire moldean;
hire txapela zeukatek, hire arropak soinean.

Masailean suma diat hire hatsaren fereka,
eta argi bat kalean dilindan zagok tarteka.

Argizko esku bat jarri didak begien aurrean,
eta, ume, mintzatu haiz nire erraien barnean.

Altxatu nauk, zutik eusten zidatek oinek oraindik;
seme, argi atsegin hauek jaso naitek lurretik.

Orain banderez jantzi haute; ene haurra, lokartu.
Batu natzaiek anaiei, hire boza diat hartu.

XX

Maitea, ez haut, ez, galdu, zainen barnean haramat.
Guztion zainetan hago; ez bizi, gero, handik at.

Asko zetozak ondora, zaldi gainean, so egik!
Ederrak dituk, hi legez, kokotsak jasota, zutik.

Hi haien artean hago, han ikusten haut pizturik;
hire eitea haiengan mila bider marrazturik.

Ni, berriz, erdi-erdian, uzkur nagok, baina
handitzen;
lur zokorrak azazkal hutsez ditiat erdibitzen.

Muturrera jaurtitzen dizkiet zokorrok otsoei,
hire musu fina zartatu zuten piztia horiei.

Hilda ere segitzen diguk; guztion negar uzkurra
korapilo duk, etsaien lepoko urka-bilurra.

Kriseiluaren argitan agintzen hidan bezala,
zutitu nauk, jaso diat ukabila berehala.

Oinez noak, bular xalook urratu beharrean,
eguzkia han baitago, malko hauen bestaldean.

Hire anaiengana noak nire sumina gehitzeko,
hire fusila hartuta, hik lasai lo egiteko.

Kantua arrebari (zatiak)

Arreba,
nola abandonatu naun gauerdian
kriseilurik gabe
hire pauso desagertuen
arrastoen bila?
Hondora nazan neu ere
heure iluntasun berean
ez dezadan entzun
hire negarren durundia
ezin konta ahala hilobi zenbatzen.
Zartaraz itzan infinituan
nire begi-globoak
hartara ikus ez ditzadan
hire esku lotuak.
Harat-honat begiratzen dinat
eta heu baino ez haut ikusten.
Hire edertasun bihozberari
hots egiten zionat
ihintz tanta bat nitaz erruki dadin.
Baina inork ez zien erantzuten

herri bentzutuen
erreguei.
Arrosa ihartuen
hauts horailak
lorategiak zuritu ditin.
Ur-bazter barea
arrastirian bildu dun
eta loak hartu din Udaberria
bere argizko bisaia
eskuetan bildua duela.
Non dun orain isiltasuna
eta bere lozorro zuriok
estasi izoztuok
arrosa sorgorrok?

[...]

Arreba,
ez naun gehiago poeta
ez naun poeta izateko adina.
Inurri zauritu bat naun
bidea galduta
gau amaigabean.
Apiril kiskalien

errautsak astindu ditinat
eta ez dinat txinpartarik aurkitzen
berogailu zaharra pizteko.
Heuk haztatzen dun
mendeetako altxorra
heure esku finetan.
Heuk eraitsi ditun
poeten etzaleku ziren gailurrak.
Eta ni ez naun gehiago poeta.
Bazakinat
poetek
ez diten beren malkoez
kristalezko hiririk zikintzen.
Beilan egoten ditun
beren so berdin eta lausorik gabeaz
neurtzeko
argiaren hotzikarak
eta unibertsoaren taupadak.
Ni, ordea,
beilan egoten naun, arreba,
neurtzeko hire taupadak
eta hatsak.
Dorrea gauean bezala, indarberritu egiten naiten
trumoi gurutzatuen

orro zeharkaezinek
eta erne ukitzen dinat ezpata.
Hire betazalen azpian
erori ditun argizko gangak.
Beste ezerk ez din bizirik
hire begiek kreazioan irartzen duten
doluzko ziklotik kanpo.
Ez dinat nahi
garaipenaren danborrik
nire loriaren iragarle
udaberriko basoetan.
Aski dinat
hire irribarrea.
Hire begietako iturriak
nire egarria ase zezaken
eta nire bizia loretan zartaraz.

[...]

Tunika distiratsu bat neukan
orduak berotzen zizkidana.
Bertso-lerroen konpainia nuen
gauetan mintzo zitzaidana
kanpaina irabaziez.

Hemen eserita
isilik eta bakarrik
goiz higatuz janzten nuen
nire lasaitasunaren agertokia.
Amesten nituen
ongietorri zoriontsuak
ezagutu gabeko lagunek prestatuak,
eta egunsentian larretik begiratzen nuen
kanpandorreko teilatu berdatzen hasi
eta zikoina zuriz elurtua.
Haur ilehoriek
begietan mirespen fin bat dutela
irekiko dituzte nire kantuen
hil-ondoko testamentuak.

[...]

Arreba,
laino batek goibeltzen zitinan beti
hire betazalak.
Balkoian bermatuta
—artean ume—
itsasoari so hengoen
basamortu amaigabe horren

amets kiribildua askatzeko.
Udazkeneko orbelekin
bazkatzen huen hire bihotza.
Amak bere itzalaren enigma
ispilatzen zinan
hire begien sakonean.
Hire aurpegiaren distira leuna
herrestan, gure etxeko
zoruan barrena.
Ez hindugun sekula negarrez ikusi.
Hire kopetako
zain finok
arroka-zain urdin distiratsuen modukoak
bakar-bakarrik borrokatzen zitunan
hire ezpain itxien sukarraren kontra.

[...]

Hotzak nagon, arreba.
Aurrerantzean, nork ekarriko zigun eguzkia
eskuak bero ditzagun?
Isildu naun, eta adi nagon.
Inor ez dun pasatzen
gauean errepidetik.

Urperatu ditun izarrak
arrano lumatuaren
begi herdoilduetan, zeinak
harat-honat baitabiltza
itzaletako murailen ertzean.
Hire esku lotuek
irtetea zailtzen diten.
Hire ahotsak bakarrik zeharkatzen ditin
gaueko korridoreak
bere ezpata luzeaz urratuz
lauzen gainazalak.
Berandu dun.
Heriotzak ez nain hartu nahi
ezta biziak ere.
Nora joango naun?

[...]

Arreba,
hator, ohera gaitezen
haur eriak nola
gure baitan hondoratu den
lorategi gorpuzgabean,
hartara sumatzeko

usain hura
utzikeriaz pausatu dena
gure bihotzeko kantoi lausoren batean.

[...]

Zeinen hotz begiratzen nauten gaur
ahotsek eta koloreek.
Sartaldeak urrezko diosal bat darama herrestan
gauza guztien bizkarrean.
Zer nahi du argi arrosa honek?
Zergatik erakutsi horrela
solemnitate soraio hau?
Zergatik nire konturako probokazio hau?
Zuhaitzek eta isiltasunak
hizlarien kolore ponposoa soineratu dute,
berriketan baitihardute etengabe
estatua itsu hauen aurrean.

Udaberriko sinfonia

I

Alde egingo dut
gailur zuri elurtuotatik,
irribarre biluz batekin berotzen baitute
nire bakardade mugagabea.

Astinduko dut sorbaldatik
izarren hauts urrekara
enarek
elurra astintzen duten bezala
hegaletatik.

Pertsona xume eta zintzo bat nola
halaxe igaroko naiz
bozkarioz eta xalotasunez
zure laztanen
akazia loratuen azpitik
eta mokoarekin zartatuko dut
udaberriaren leiho distiratsua.

Ume zoriontsu bat izango naiz
irribarrez gauzei
eta bere buruari
lotsarik eta zalantzarik gabe.

Ezagutu ez banu bezala
neguko ilunabarren
kopeta zurbilik
etxe hutsetako lanpararik
eta paseatzaile bakartirik
abuztu beteko
ilargiaren azpian.

Haur bat.

III

Begira, maitea,
nola begiratzen zaituzten
nire esku saminduek.

Bi umezurtz dira
gauean negarrez
ogirik gabe
eta dardarka lo
elurraren gainean.
Hotzak, baina ez eskean.

Lore isil bat
zuten eskuetan
eta eztiki eta baldarki jolasten zuten harekin
kale zartatu haietan.

Maitea
begira nola dauden dudatan
nire esku gautuak.

Nola irekiko zait
argizko ate hau
errainu baten itzalik ere
ezagutu ez badut?

Kanpoan geratu naiz, koldar,
leiho handiei begira

arrosa argiztatuei
eta kristalei
eta beti diot banoala ihesean
gau ezagunean barna
eta beti diot banatorrela
eta beti geratzen naiz hor
atearen aurrean.

Ez niri hots egin oraindik.
Luza ditzagun
ordu lauso hauek
ordu bete hauek
non bi munduk
topo egiten duten
non bi boz sakon
orekan dauden
urrezko korda baten gainean
eta antzigar tanta bat dagoen
dardarka eta kulunkan
gaueko lorean.

Hemen geratuko da
han eroriko.

Maitea, zer prestatu duzu guretzat
argi honen bestaldeko
jainkoen begiradan?

XVI

Poza, poza.
Ez zaigu axola
zer utziko duen gure musuak
denboran eta kantuan.

Ukitu dugu
xederik nahi ez duen
alferrikakotasun handia.

Jainkoak
bere burua haragitzen du
gure musuan.
Harro betetzen dugu
infinituaren agindua.

Leiho txiki bat
zeruari so.

Txolarre batek dio
zerua.
Ixo.

Gure ezpainen zuloan
bizi da absolutua.

Gau zohardian
isilik entzuten dugu
itsasoaren arnasa
neskato zoriontsu baten bularrean bezala
zoriontasuna
ezin kabiturik.

Izar bat erori da.
Ikusi duzu?
Isilik.
Itxi begiak.

XX

...Udako iluntzea
sartzen zen leihotik

aitaren etxeko
ganbera zurian.

Umetako ohatzean
etzanda
betazalak erdi itxirik
adi nengoen, izarrak eta kilkerrak
txioka larreetan.

Lanpara adeitsuaren azpian
ama aingura bat brodatzen ari zen
zeta urdinezkoa
nire lihozko amantalean.

Haren esku finak joan-etorrian
argi-sortaren baitan
—txori zuriak
nire bihotzeko laku barean.

Nire aingura brodatua
hain fermuki lotzen zituena
txalupatxo txikiak
eta nire ametsak
gure uharteko portu txikian.

Heriotzak ukitu gabea zuen
gure lorategiko belarra
eta balkoi loratua
ez zaigu sekula haizeetan hegaldatu
partitzeetako zapiak bezala
itsaso infiniturantz.

Ezezaguna bezaturik
lo zegoen
amaren itzalaren bestaldean.

Eta halere nik
ez bainekien ezer
Jainko Ona ikusten nuen
niri irribarrez
leiho irekiaren sakonean
izarren urrezko sastraken atzetik.

Urrin bat zabaltzen zen aire samurrean
belar freskoa eta jasmina.
Eta pauso leun batek
Aingeru baten oin distiratsuak bezala
gure etxea zeharkatzen zuen.

Zure pausoa zen, edo Amore,
duela hainbeste urte
nirekin batu nahi zuena
udako ilargiaren azpian.

Eta ni lo ezinik
entzuten nola zure urratsek
kantuz betetzen zituzten
munduaren bihotza
eta neurea.

Gaur arratsean oraindik ere antzeman dut
gure etxetik kanpo
Aingeruaren itzal babeslea.

Maite, zeuk ekarri dizkidazu bueltan
amaren txori zuriak
eta aingura hura, laku isil hartan
lotzen dituena
txalupa zaurituak.

Nire edertasuna bildu egiten da
zure adatsaren apaingarri.

Eta gozo eta samur den oro
gertu izanagatik beti arrotz nuena
eta nitaz ahaztua zena
zure eskuetara itzuli da
epeltzeko
berpizteko
eta musu emateko zuri.

Doxologia

Kalearen beste muturrean zegoen
zuhaitz biluzi eta haustu baten antzera
eguzkiak erretako zuhaitz baten antzera
erre ezin den eguzkiari aintzan

Segida

Eguzkiak ez du onartzen zure zalantzarik...
Biluzik nahi zaitu, eta biluzik hartzen zaitu,
harik eta gaua datorren arte zu janztera.

Eguzkiaren ondoren, damua.
Damuaren ondoren, eguzkia berriro.

Haize etesiarrak

Barkuak, eta barkuak, eta barkuak...
Orgari bultzaka, saltzaile ibiltaria maldan behera so
dago.
Pinuak itsaso aldera makurtzen dira.
Itsasoa mendian gora doa,
eta saltzaile ibiltaria, orgari bultzaka,
eguzkian zamalkatu da, apar zuriz zipriztindurik.

Biluzik

Hemen, logelako nahas-mahasean,
hautsez estalitako liburuen
eta antzinako erretratuen artean,
hainbeste itzalen baietzen eta ezetzen artean,
zutabe bat, argia geldirik,
hemen, aulki honetan,
biluzi zinen gau batez.

[kaia gauez]

Kaia gauez
argiak uretan itota
aurpegiak antzu, oroitzapenik gabe
urruneko itsasontzien izpi etenek argiturik
eta gero hondoraturik bidaiaren itzalean
barkuen belak trabeska, amets-lanparak zintzilik
dituztela
aingeru bekatariaren hego zartatuak irudi
soldaduak kasko eta guzti
gauaren eta ikatzaren artean
esku zaurituak, berandu datorren barkamena
bezalakoak.

Presoak aingurei lotuta
urka-bilur bat zerumugaren zintzurrean
eta kate guztiak hemen, haurren oinetan
eta bitxilore bat duten ilunabarraren eskuetan.

[itsasertzean genuen lorategia]

Itsasertzean genuen lorategia.
Zerua irristaka sartzen zen leihotik
eta amak
aulkitxo baxuan eserita
brodatzen zituen udaberriko larreak
eta atari irekiak etxe zurietan
eta zikoinen ametsak lastozko teilatuan,
zeina idatzia baitzegoen gardentasun urdinkaran.

Etorri gabea zinen oraindik.
Mendebaldera begiratu nuen, eta zu ikusi
— errainu arrosa bat zure begietan
— irribarre-itzal bat itsasoaren sakonean.

Gure amak eskuetan nindukan.
Baina nik
haren sorbaldaren atseginaren atzetik
haren adatsaren zurbilaren atzetik
emeki, pazientzia eta onberatasuna usainduz,
serio begiratzen nion itsasoari.

Kaio batek hots egin zidan
arratsaren sakonetik
hona, mendien lerro etzanera.

Gauerdia

Gau izartsu eskergak bere atzapar biluziak
erakusten dizkigu;
pauso arrotzek loa osten dizute.
Zer da sabaian gora herrestatzen den itzal hau,
gela erdibitzen duena?

Pausoak, motozikleta bat, katuaren klaska-hotsa —
esku-argia leihoaren kristalean,
labezomorroak soldaduen bota eta kaskoetan.

Zertarako dugu orain ilargiaren errukia?
Batzuk gauaren kaxetan ezkutatu dira,
batzuk zerraldoan sartu dira bidaiatzera,
batzuek giltzak hartu dizkiote kutxazainari, eta
beren lurrak errenditu.
Ahaztu gaituen zakur hau ilargiari zaunkaka ari da;
esnatu egin ditu zelata-dorre urrunetako zaindariak;
lehen eztandak zubia birrindu du.
Gero, ateak karranka egin du, eta izkinan dago
eskuadroia;

kale-argiak muturrez aurrera erori dira, eta
trenaren txistua aditu da
baionetek bost errepideak itxi dituzten honetan.

Romiosine*

I

Zuhaitzok ez dute ametitzen zeru txikiagorik,
ez eta harriok pauso arrotzen gerizperik.
Aurpegiok ez dute ametitzen eguzkia baizik,
ez eta bihotzok justizia besterik.

Lur hau latza da, isiltasuna bezala;
bere sabelean estutzen du harkaitzen goria,
argiaren kontra estutzen ditu haien olibondo eta
mahasti umezurtzak,
hortzak estutzen ditu. Ez dago urik. Argia besterik
ez.
Argitan urtzen da kalea, eta burdinazkoak dira
hesien itzalak.

Marmol bihurtu dira zuhaitzak, ibaiak eta ahotsak
eguzkiaren kare-hautsaren pean.
Sustraiek irrist egiten dute marmolean. Soka
hautseztatuak dira.

Mandoa eta arrosa. Arnasestuka. Ez dago urik.
Egarri dira denak. Aspaldi-aspalditik. Denek ahoratu
dute zeru pusketaren bat,
nork bere atsekabeaz gain.

Loezinak begiak gorritu dizkie.
Zimur sakon bat dute bekainen artean iltzaturik,
nola zipres bat mendi biren arteko ilunabarrean.

Eskuak fusilei itsatsiak dituzte,
fusilak eskuen luzapenak dira,
eskuak arimaren luzapen.
Amorrua dute ezpainetan,
eta tristurak, haien begien sakonean,
izar bat dirudi putzu gazi batean.

Eskuak estutzen dituztenean, eguzkia egiazkoa da
munduarentzat.
Irribarre egiten dutenean, enara txiki bat
hegaldatzen zaie bizar kizkurretatik.
Lo daudenean, hamabi izar jausten zaizkie patrika
hutsetatik.
Akabatzen dituztenean, maldan gora egiten du alde
bizitzak,

banderak astinduz eta danbor-hotsez.

Urte asko dira denak direla gose, denak egarri,
denak akabatzen dituztela
lur-itsasoen mende.
Sargoriak soroak jan dizkie, eta kresalak etxeak
blaitu.
Haizeak ateak eraitsi dizkie, eta baita plazako lili
urriak ere.
Jaken zuloetatik sartu-irtenean dabilkie herio.
Zipresaren fruituak bezain garratzak dira haien
mihiak.
Zakurrak hil egin zaizkie, haien itzaletan uzkurturik.
Euriak hezurrak zafratzen dizkie.

Harri bilakaturik, zelatariak simaurra eta gaua ari
dira erretzen
itsaso gupidagabeari so, han hondoratu baita
ilargiaren masta hautsia.

Ez da ogirik gehiago, ez da balarik gehiago,
orain bihotzak baino ez dituzte armak kargatzeko.

Hainbeste urte lur-itsasoen mende.

Denak dira goseak, eta inor ez da bere kasa hiltzen.
Zelatariek dizdizka dituzte begiak:
bandera handi bat, su handi bat, gori-goria,
eta, egunsenti bakoitzean, milaka usok alde egiten diete eskuetatik
zerumugaren lau ateetara bidean.

IV

Egunsentirantz alde egin zuten, zuzen, gizaki gosetuaren lainezaz.
Izar bat mamitu zen haien begirada geldian;
uda zauritua hil-hurren zeramaten sorbaldan.

Armada igaro zen hemendik, estandarteak larruazalean.
Udare heldugabe bat balitz bezala hozkatzen zuten beren setakeria;
ilargiaren hondarra zeramaten bota militarretan,
eta gauaren ikatz-hautsa sudur-zulo eta belarrietan itsatsia.

Zuhaitzez zuhaitz zeharkatu zuten mundua, harriz harri,
eta arantzaz jositako burkoekin zeharkatu zuten loa.
Bizitza bi esku lehorren artean zeramaten, ibai bat bezala.

Pauso bakoitzean, besoa bete zeru irabazten zuten —eta partekatzen.
Zelatariak harri bilakatzen ziren, garrak hartutako zuhaitzen antzera,
eta, plazan dantzan zebiltzalarik, dar-dar egiten zuten etxeen teilatuek
eta apalategietako kristalek.

Ai, zer kantak astindu ote zituen mendi-gainak! —
belaunetan eusten zioten ilargiaren goporrari, eta afari-legea egiten zuten;
arrangura erdibitzen zuten beren bihotzen sakonean,
arkakuso bat erdibituz bezala bi azazkal lodiren artean.

Nork eramango dizu orain ogi-kozkor berorik gauean, ametsak elika ditzazun?

Nor geratuko da orain txitxarrarekin olibondoaren
gerizpean, kanturik itzal ez dakion?
Orain, eguerdiko kare-hautsak zerumugaren hesi
biribila tindatu du,
eta haren gizon-izen handiak ezabatu.

Lur honek oilariteak perfumatzen zituen.
Haiena zen, eta gurea —haien odola—, nolako
usaina lurrak,
eta nola itxi diren orain gure mahastietako atakak,
nola mehetu den teilatu eta zuhaitzetako argia.
Nork esan behar zuen erdiak lurpean aurkituko
zituztela
eta beste erdiak kateatuta?

Eguzkiak diosal egin arren hainbeste hostorekin
eta zeruak distira hainbeste estandarterekin,
batzuk kateatuta daude, eta besteak, lurpean.

Ixo, berehala joko dituzte kanpaiak.
Lur hau haiena da, eta geurea.
Lurpean, esku gurutzatuen artean,
kanpaiaren sokari eusten diote. Ordua iritsi zain
daude,

lorik egin gabe, hil gabe,
pizkundea jotzeko zain. Lur hau
haiena da, eta geurea. Inork ezin digu ostu.

V

Olibondoen azpian eseri ziren arratsaldean,
hatz lodiekin iragaztera errauts koloreko argia.
Kartutxo-uhalak erantzi zituzten, eta kalkulatu
zenbat neke eden zezakeen gaueko xendrak;
zenbat mingostasun malba zuriaren korapiloak;
zenbat adore bandera ortozik daraman haurraren
begiek.

Azken enara gauean berandura arte geratu zen
larreetan.
Airean orekatu zen, nola xingola beltz bat
udazkenaren mahukan.
Ez zen beste ezer geratzen. Etxe erraustuek baino
ez zuten jada kerik botatzen.

Besteek harrien azpian utzi gintuzten aspaldi;

haien alkandora hautsiak eta haien zina, ate
abailduan idatzia.
Inork ez zuen negarrik egin. Ez genuen denborarik.
Sosegua soilik hazten zen,
eta argia ur-ertzean uzkurtua zegoen, emakume
erailaren nekea bezala.

Zer egin behar dute orain, euria lurperaino sartzean
bananondo-hosto zimel eta guzti?
Zer egin behar dute eguzkia lehortzen denean
hodeiaren estalpean
baserriko ohatzean zanpaturiko zimitz baten
antzera,
eta ilunabarraren tximiniaren gainean pausatzen
denean
elurrezko zikoina baltsamatu hura?

Atso zaharrek gatza botatzen diote suari, eta lurra
beren adatsari.
Erauziak dituzte Monovasiako mahastiak,
mahats beltzak ez dezan etsaien ahorik goza;
zakura jaurti dituzte arbasoen hezurrak eta sukalde-
tresnak,

eta noraezean dabiltza, aberriaren hormaren
bestaldean,
gauean non errotu idoro nahirik.

Zaila izango da gereziondoaz beste mintzairarik
aurkitzea,
ez hain indartsua, ez hain harrizkoa —
esku haiek soroetan geratu ziren,
mendi-gainetan edo itsaspean,
eta ez dute ahazten, ez dute inoiz ahazten —
nekez ahaztuko gara haien eskuez,
nekez eskatuko dute bitxilorerik katua sakatzeaz
lazturiko eskuek,
nekez belaunikatuko dira eskerrak ematera,
liburuaren gainera
edo izarren distiraren soinera.

Denbora beharko da. Eta hitz egin beharra dugu.
Haiek ogia eta justizia aurkitu arte.

Egunabarrean, bi arraun hondarrean iltzatuta
denboralean.
Non da txalupa?
Golde bat lurrean sartua, eta haizea ufaka.

Lurra errea dago. Non da laboraria?

Hausterre dira oliba, olibondoa eta etxea.
Galtzerdiaren barruan, izarrez josiak daude gauaren
adabakiak.
Lehorrak ereinotza eta oreganoa arasan. Ez ditu
suak ukitu.
Eltze ketua sutan, eta ura borborka
etxe zarratuan. Ez zuten jateko denborarik.

Basoaren zainak ateko hosto errean —odola
daramate.
Oin-hots ezagun bat. Nor da?
Oin-hots ezagunak aldaparako iltzeak dauzka.
Sustraia narras harriaren barnean. Baten bat gertu.
Pasahitza. Anaia. Arratsalde on.

Argiak aurkituko ditu, bada, bere zuhaitzak;
zuhaitzak aurkituko du fruitua.
Hilaren kantinploran bada urik eta argirik oraindik.
Arratsalde on, anaia. Arratsalde on.

Sartalde zaharrak espeziak eta ehunak saltzen ditu
zurezko etxolan.

Inork ez ditu erosten. Mendira joanak dira.
Nekez jaitsiko dira.
Nekez emango dizkiote neurriak.

Gau batez palikariek** afaldu zuteneko larrainean
ahaztuta geratu dira oliba-hezurrak eta ilargiaren
odol lehorra,
bai eta armaz neurtutako hamabost silabako bertsoa
ere.
Inguruan, ereinotzak eta zipresak geratzen dira.

Hurrengo egunean, enarek haien ogi-papurrak jan
zituzten.
Haurrek jostailuak egin zituzten pospolo haiekin,
zeinak erabiliak baitzeuden zigarretak eta izarren
arantzak pizteko.

Eta, bazkalostean, itsasoaren aurrean eseri ziren,
olibondoen azpiko harri batean:
bihar, labean, kare izango da,
eta etzi, kare-hauts, etxerako eta Santa Salbatoraren
petrilerako.
Etzidamu, hazia ereingo dugu loak hartu zituen
lekuan,

eta alesagar-kapulu bat lehertuko da,
jaioberriaren lehen algara bezala eguzki-izpien magalean.

Gero, lurrean eseriko gara, haien bihotz guztiak leitzera,
hasieratik leituko bagenu bezala unibertsoaren historia.

VI

Itsasoak bularrean du eguzkia bete-betean, eta egunaren beste ur-ertza kareztatzen du.
Itxialdiak eta egarriaren nekaldiak bizpahiru bider aitortzen dira;
zauri zaharra hasieratik aitortzen da,
eta bihotza txigortu egiten da sargorian, guk atarian utzitako Ziterako tipulen antzera.

Haien eskuek gero eta antz handiagoa dute lurrarekin,

haien begiek gero eta antz handiagoa dute
zeruarekin.
Olioz hustu da pegarra. Liga txiki bat hondoan.
Sagua hilik.
Hustu da ama adorez, buztinezko pitxerra eta
uharka bezala.
Bolboraren erruz, mingotsak dira desertuaren hortz-
oiak.

Non da orain olioa Santa Barbararen kandelarako,
non mendafina, ilunabarraren urrezko ikonoa
intsentsatzeko,
non ogi mokadurik gau eskalearentzat
trukean kopla izartsuren bat jo diezazun lirarekin.

Irlaren gaineko gazteluan, pikondoak eta asfodeloak
mamu bilakatu dira.
Lurra harrotua dago kanoikaden eta hilobien erruz.
Agintarien gotorleku eraitsia aharrausika dago, eta
zeru-adabakiz josirik.
Jada ez dago lekurik hil diren guztientzat.
Saminak ez du lekurik bertan geratu eta adatsa
txirikordatzeko.

Etxe kiskaliek begi erauziekin ikusten dute marmol bilakatu den itsasoa,
eta balak teilatuetan hondoratuta daude,
zipresari loturiko santuak saihetsean dituen aiztoak bezala.

Egun guztian, hildakoak buruz gora etzaten dira eguzkitan,
eta, iluntzean baino ez, soldaduak tripaz behera herrestatzen dira
harri kiskalien gainean,
heriorik gabeko airearen usnan,
ilargiaren txapinen bila, zola puska bat mastekatu bitartean;
ukabilaz zafratzen dute arroka, ea ur tantarik isurtzen duen,
baina barnehutsa da pareta.
Eta berriz entzun dute kanoikadaren danbatekoa, itsasorantz jirabiraka,
eta berriz entzun dute zaurituen lantua atearen aurrean.

Norantz jo? Anaia deika duzu.

Gautu du bazter guztietan, itsasontzi atzerritarren
itzalpean.
Hormekin bideak itxi dituzte.
Goitik baino ez da geratzen biderik.
Ontziak madarikatzen dituzte, eta mihiak hozkatzen,
artean hezur bilakatu gabeko mina aditzeko.

Goian, almenetan, gerrillari erailek zutik zaintzen
dute gaztelua;
zatika erortzen zaie larruazala uniformeen azpian.
Aizu, anaia, atsedenik ez?
Bala bat loratu zaizu bihotzean,
eta bost hiazinto hazi dira arroka biluziaren
besapetik.
Hatsik hats, usainak ipuin bat kontatzen du. Ez al
zara akordatzen?
Hozkadarik hozkada, zauriak bizitza kontatzen dizu,
eta behatz lodiko azazkaleko zikinkerian hazitako
kamamilak
mundua zein ederra den azaltzen dizu.

Eskua hartu duzu. Zeurea da. Kresalez blai.
Zeurea itsasoa. Isiltasunari burutik ile bat hartuko
bazenio bezala,

pikondoko esnea mingots isurtzen da, tantaka.
Nonahi egonda ere, zerua so duzu.

Goiztiriak hatzekin biltzen dizu arima, zigarreta bat
balitz bezala,
buruz gora etzanda erre dezazun,
ezkerreko eskua gau izartsuan bustiz,
fusila eskuinekoan itsatsia, ezkongaia bezala,
oroit dezazun zeruak ez zaituela sekula ahaztu
noiz eta patrikatik eskutitz zaharra atera eta,
hatz erreekin ilargia destolestuz, indarra eta loria
irakurriko baitituzu.

Gero, zure uharteko zelata-lekurik garaienera igoko
zara,
eta, izar bat balatzat kargaturik, tiroa egingo diozu
aireari
teilatuen eta masten gainetik,
mendien gainetik, zeinak soldadu zaurituen antzera
makurtzen diren,
espirituak uxatzeko besterik ez bada, eta itzalen
mantapera egozteko —

tiro bat egingo diozu zeruari bularrean, itu urdinaren bila,
alkandoraren gainetik aurkituko bazenu bezala
bihar zure haurra edoskiko duen emakumearen titiburua;
urteen akaberan aurkituko bazenu bezala
gurasoen etxeko atearen heldulekua.

VII

Etxea, kalea, pikondoa eta ekilore-azalak;
oiloak mokoka dabiltza eskortan.
Ezagutzen ditugu, ezagutzen gaituzte. Hemen behean, sasien artean,
sugeak bere atorra horia utzi du.

Hemen behean daude inurriaren etxola eta liztorraren dorrea
kanoi-zuloz josirik.
Olibondo berean, txitxarraren iazko azala eta aurtengo ahotsa.
Sastraken artetik, zure itzalak gertutik jarraitzen dizu,

zakur isil eta tormentatu baten antzera,
zakur fidela —eguerdian, zure lurrezko loaren
aldamenean esertzen da
ereinotz mikatza usaintzera,
eta gauez oinetan uzkurtzen zaizu, izar bati begira.

Udareen isiltasuna da, eta orpoetan hazten zaio
udari;
urezko logura bat, denbora galtzen duena algarrobo-
sustraietan.
Udaberriak zazpi umezurtz ditu lo magalean,
eta arrano bat begietan, erdi hilik.
Eta han goian, pinudiaren atzean,
San Joan baraugilearen kapera idortu egin da,
nola txori-kaka zuri bat sargoriak iharturiko
masustondo-hosto handi batean.

Zamar iletsu batean bildu da artzaina,
eta ibai lehor bat du gorputzeko bilo bakoitzean,
eta artadi bat txirularen zulo bakoitzean;
korapilo berak dituzte haren astamakilak
eta Helespontoko uren urdina lehen aldiz urratu
zuen arraunak.

Ez duzu zertan oroitu. Bananaren zainak
zure odola darama, eta berdin irlako asfodeloak eta
kaparrondoak.

Eguerdian, putzu isilaren barrenetik dator
ahots biribil bat, kristal beltz eta haize zurizkoa;
ahots biribil bat, tina zahar bat bezalakoa. Antzinako
ahots bera.
Eta zeruak anilez ikuzten ditu harriak eta gure
begiak.

Gau osoan, ilargiak hilak jiratzen ditu larreetan;
aurpegiak bilatzen dizkie bere hatz basa eta
izoztuekin,
semea ezagutuko ote, kokotseko ebakiaren eta
harrizko bekainen bila.
Patriketan bilatu du. Beti aurkitzen du zerbait. Beti
dago zerbait.
Egur noblezko kutun bat. Zigarreta birrindu bat.
Giltza bat, gutun bat, zazpietan gelditutako erloju
bat.
Berriz ere eragin diogu sokari. Orduak aurrera doaz.

Etzi, arropak desegiten zaizkienean

eta biluzik geratzen direnean botoi militarren
artean,
zeru-txatalak udako izarren artean geratzen diren
bezala,
ibaia heriotzorrien artean bezala,
limoiondoen arteko bidexka udaberriaren hasieran
bezala,
orduan, agian, aurkituko ditugu haien izenak
eta “maite dut” oihukatuko.

Oraindik ez. Baina, nolabait, gauzak oso urrunekoak
dira berriz ere,
eta oso gertukoak nolabait, ilunpean eskua luzatu
eta “arratsalde on” esatea bezala
noiz eta erbesteratua itxaropen mingotsez etxera
itzuli
eta etxekoek ez baitute ezagutzen.
Hark heriotza ezagutu baitu,
eta bizitza ezagutu baitu bizitza baino lehen, eta
heriotzaren gainetik,
eta ezagutzen ditu. Ez da samintzen. Bihar, dio. Eta
ziur dago
biderik luzeena dela laburrena jainkoaren bihotzean.

Eta hara, ilargiak musu eman dio belarri ondoan.
Algek, loreontziek, aulkitxoek, harrizko eskailerek
arratsalde on diote tristezia apur batekin,
eta arratsalde on diote mendiek eta itsasoek eta
hiriek eta zeruek.
Orduan, zigarretaren errautsak balkoiko hesiaren
artetik barreiatuz,
negar egiten ahal du bere segurtasunagatik,
negar, zuhaitzen segurtasunagatik.
Eta izarrengatik, eta anaiengatik.

* Romiosine: Greziako nazio-sentimendua adierazten duen hitza, berez kontraesankorra, etimologikoki gertuago baitago *erromatar* zibilizaziotik Helade greziarretik baino. Hain zuzen ere, IV. mendean, Ekialdeko Erromatar Inperioko greziarrek *romaioi* esaten zioten beren buruari, erromatar, alegia, *heladetar* paganoengandik bereizteko; hortik dator *romiosine*. Gure inguruko erdaretan *grecidad* eta *grecité* ere erabili izan dituzte ordain gisa, baina hitzaren etimologia alderantzikatzeak estali egiten ditu nazio-sentimendu horrek bere baitan dituen kontraesanak, berez dagozkionak Greziari, zeina

harrapatua baitago Antzinako Greziaren iragan loriatsu baina urrunaren eta gainbeherazko historia berriaren bidegurutzean. Horretaz dihardu, hein batean, Ritsosek (Itzultzailearen oharra).

** Palikari: Greziaren Independentzia Gerran (1821-1830) Otomandar Inperioaren kontra borrokatutako gerrillaria (I. O).

Artista ahazkorra

Margolari batek tren bat margotu zuen
arratsaldean.
Azken bagoia paperetik ebaki
eta bere kasa itzuli zen mihisera.

Bagoi horretan bertan zegoen eserita margolaria.

Identifikazioa

Bakarrik.
Gauaren gorputz zuri eta iluna
haren gorputzari itsatsia.
Ba al dago? Ez al dago? Etxearen barruan, aulkiek
lau hanka dituzte.
Hain sinplea da mundua.
Hain osatua.

Memoria

Usain epel bat geratzen zen haren berokiaren besapeetan.
Berokia korridoreko esekilekuan, errezel itxia irudi.
Orain edozer gerta ere, beste noizbait izan zen. Argiak aurpegiak aldatzen zituen, oharkabean beti. Eta inork etxean sartzekoa egiten bazuen,
beroki huts honek astiro eta goibel jasoko zituen eskuak
eta atea itxiko ostera ere, isilik.

Bere lanarekin bakarrik

Gau osoa eman du bakarrik trostan, haserre bizian, errukirik gabe joz
zaldiaren saihetsak. Zain izango zituen —esaten zen—, hutsik gabe,
handia zen beharra. Egunsentian, iritsi zenean,
ez zuen inor zain, ez zegoen inor. Bazter guztietara begiratu zuen.
Etxe hutsak, zarratuak. Lo zeuden.
Ondoan, zaldia entzun zuen, arnasestuka —
aparra zuen ahoan, zauriak saihetsean,
bizkarra ere larrutua.
Zaldia lepotik besarkatu zuen, eta negarrez hasi zen.
Zaldiaren begiak, handi, ilun, hil-minetan,
bi dorre ziren, bere-bereak, urrunak, leku euritsuren batean.

Bertsoa

Azkenaren zapore sakona aitzinatzen zaio poemari.

Hasiera.

Sonanbuloa eta bestea

Gau osoa eman zuen lorik egin gabe. Adi entzuten zituen
sonanbuloaren pausoak teilatuan. Pauso bakoitzak
oihartzun egiten zuen, mugarik gabe, bere baitako zulo
mardul eta hutsean. Leihoaren ondoan geratu zen, zain,
besoetan hartzeko, erortzen bazen. Baina hark
bera ere erakarriko balu erorikoan? Txori baten itzala
horman? Izar bat? Bera? Bere eskuak?

Kolpe bat aditu zen behean, harbidearen kontra. Egunsentia.
Leihoak ireki zituzten. Bizilagunak kanpora atera ziren. Sonanbuloa
arin jaitsi zen metalezko sute-eskaileran behera
ikusteko nor erori zen leihotik.

Antzoki zaharra

Eguerdi aldera, ohartu zelarik antzoki zaharraren
erdian zegoela,
greziar gazteak, susmorik gabe, eta halere haiek
bezain eder,
oihu bat egin zuen (ez mirespenez, mirespenik
ez baitzuen sentitzen, eta sentituko balu ere
ez zuen, noski, erakutsiko), oihu soil bat,
agian gaztetasunaren bozkario basaren indarrez,
edo leku haren akustika probatzeko. Bestaldean,
mendi piko haien gailurretik, oihartzunak erantzun
zion,
oihartzun greziar batek, zeinak ez baitu imitatzen ez
errepikatzen
ezpada goratzen, ezin neurtuzko moduan,
ditiranboaren* betiereko lantua.

* Ditiranbo: Antzinako Greziako konposizio lirikoa, batik bat Dioniso jainkoaren omenezko erituetan erabilia (I.O).

Gutxi gorabehera

Gauza solteak daramatza eskuetan —harri bat,
teila hautsi bat, bi pospolo erre,
bestaldeko hormako iltze herdoildua,
leihotik sartu den hostoa, tantak
loreontzi ureztatutik ihesi, lasto hura
haizeak zure adatseraino ekarria—. Hartu ditu,
eta han, patioan, zuhaitz bat osatu du, gutxi
gorabehera.

“Gutxi gorabehera” horretan datza poesia. Ikusten?

Emakume menderakaitza

Urdina ez —dio—, gorria da zerua,
eta tanto horixkak ditu. Hala dio. Eskua jaso du;
apaletik plater gorria hartu, sagarra zatitu,
sagarra eta platera leihotik jaurti,
eta zutik geratu da bestaldean, ispiluan, eta orraztu egin da,
zapata gorri, adats berde, bular urdin,
labana hortzetan, brida irudi,
prest ispilura jauzi egiteko, zaldi gorri eta guzti.
Eta haren zurdak distira egin du ispiluaren sakoneko imintzioan.

Arratsaldea

Loreak ureztatzen ari zen. Ura entzuten zuen
balkoitik tantaka.
Lauzak blai zeuden, eta zahartzen ari ziren. Etzi,
balkoia erortzen denean, bera airean geratuko da,
isilik, eder, eskuetan hartuta
haren bi loreontzi handiak: geranioak eta irribarrea.

Zeharka

Txoria so nuen. Erlojua geratu egin zen.
Harri bat daukat, neurea, itsasoaren bazterrean —
dio—.
Teilatu bat dut neure parteko. Horregatik
da horrelakoa, gorria, eta ni ere gorritu egiten naiz.
Ez zintudan biluzten ikusi, ni hara begira nengoen,
zure orpoak baino pixka bat bazterrerago,
zure adatsa baino pixka bat gorago. Han
zerua bakarrik zegoen. Ez nuen ikusten.

Lehen plazera

Mendi harroak, Kalidromo, Ete, Otris,
arroka arranditsuak, mahatsondoak, gari-sailak, olibondoak.
Meatzeak ezarri dituzte hemen, eta itsasoak atzera egin du;
eguzkitan erretako mastika-zuhaitzen usain sarkorra
eta erretxina koagulutan tantaka. Handia zen
abailtzear zen gaua. Han, ur-ertzean, Akilesek,
oraindik nerabe ere ez, sandaliak lotzen,
urruneko plazer hura sentitu zuen orpoa heldu bitartean
eskuen artean. Lipar batez arreta galdu zuen,
eta hantxe geratu zen, uretako errainuei so. Gero,
erementerian sartu zen, eta ezkutua egiteko agindu zuen.
Orduan jakin zuen zer forma, zer eszena, zer neurri.

Emakume igarlea

Nahasiak beti haren tximak, hiletari bat irudi,
hildako ikusezinen baten gainean, edo
bere hildakoaren gainean. “Dohain itsusia da —dio—
zuzen asmatzea”. Komuneko
sareta ilun hura begien aurrean,
bere adatsa balitz bezala —ez bakarrik
heriotzaren sarea, are okerrago: doluaren sarea,
bekaitzarena eta lortu ezin den horrena. Eta bueltan dira
udaberriko ordu ederrak, hauskorrak
—haur batek oinak sartu ditu
ontzi handi hartan, xaboiarekin jolasean—,
eta bera, azazkalekin bi zulo saretuz
bere adats bakanduan
lira bat joz bezalaxe, sakonera so dago,
eta zuzen igartzen du, eta zuzen irribarre egiten.

Bigarren etorrera

Badatoz gauean, lerro urrun batean, erailak;
ingurura begiratu dute; giltzak probatu dituzte; atea ireki dute;
etxean sartu dira; itzalean bilatu dute; ez dute ezer aurkitu.
Ohe azpian zaude. Ohe hura
gainean etzateko zen, eta orain
bizkarrean daramazu. Eta errezelen atzean
altxatu da leihoaren itzal gurutziltzatua.
Hilek jada ez dakite, inondik ere, zergatik hil ziren.

Pireoko atxilotuak lekualdatze sailean

Manta erdia azpian, erdia gainean; sukarra, porlana, hezetasuna,
ile izerditua, horman hatzaz irarritako inskripzioak —
izenak, datak, zin txikiak; amesgaizto bera
zuzi berarekin zuloak irekitzen: “gaur gauean, gaur gauean”,
“bihar, eguna urratzean”. Nor geratuko ote da hemen gu oroitzeko
entzun ditzagunean giltza sarrailan eta kate luzea
arrastaka amaigabeko zurirantz, non, alde batean,
artean kea baitario bota dugun azken zigarretari.

Azken hitzak

Ez zuen norekin hitz egin. Indarrez ematen zion mailuari. Gaua zen.
Ez zuen ongi ikusten zer ari zen iltzatzen. Banku bat? Kutxa bat? Ate bat?
Mailuari ematen zion beti. Azken lagunak galdetu zion, lasai: “Zer habil?”. Eta hark are lasaiago erantzun: “Arbendolak txikitzen”. Eta bizpahiru bota zizkion probatzeko. “Ederrak!” esan du besteak. Orduan, mailua altxatu, eta ezkerreko eskua jo zuen, etsai ikusezin bat balitz bezala. “Hauek hobeak”, esan zion.
Baliteke hala gertatu ez izana. Ilundua zen. Ez zen ezer ikusten.
Beherago, trenak txistu egin zuen. Bestea desagertu egin zen.

Oroitzapena

Etorri nintzen muinora; geratu nintzen, ingurura begiratu, eta deiadar egin nuen.

Behean, harriak harrien kontra amildu ziren.

12 poema Kavafisentzat

1. Poetaren tokia

Idazmahai beltz irarria, zilarrezko bi argimutilak,
haren pipa gorria. Besaulkian eserita dago, ia ikusezin,
leihoari bizkarra emanda beti. Betaurrekoen atzetik,
hizketan duenari so dago, handi eta serio;
argitan blai dago bestea, eta bera bere hitzetan ezkutaturik,
ezkutaturik historian, berak sorturiko aurpegi urrun eta ukiezinetan;
besteen arreta bereganatzen du atzamarrean daraman
zafiro baten distira leunarekin, eta, guztiz prest,
hazpegi guztiak dastatzen dizkie mutil gazte haiei, noiz eta efebo inozo horiek
mingainekin ezpainak bustitzen baitituzte mirespenez. Eta bera,
zuhur, goseti, larruzale, errugabe handia,

baietzaren eta ezetzaren artean dago, desiraren eta damuaren artean,
nola balantza bat jainkoaren eskuetan, beti zabuka. Bien bitartean,
haren atzeko leihoko argiek
barkaziozko eta santutasunezko uztai bat jartzen diote buru gainean.
“Poesia ez bada absoluzioa —xuxurlatu du bere kolkorako—,
ez dezagun inon espero errukirik”.

4. Lanpara itzaltzea

Badator neke handiaren ordua. Goiz liluragarria,
traidorea; gau guztien amaiera markatzen du, gaina hartzen dio
ispiluko damu distiratsuari, eta erresuminez lubakitzen ditu
aho-begien inguruko zimurrak. Orain,
alferrik dira lanpara xaloa eta erridau itxiak.
Amaiaz konturatze zurrun bat datza izaretan; han hozten da

udako gauaren hats epela, eta xerlo gutxi batzuk
geratzen dira,
kizkur gazte batzuetatik eroriak —kate eten bat—
kate hori bera — nork forjatua da? Ez,
alferrik dira oroitzapena eta poesia. Hala ere,
azken-azkenean, loak hartu aurretik, lanpararen
kristalera makurturik
garrari putz egiteko, hura ere itzal dadin behingoz,
ohartu da ezen
eternitatearen kristalezko belarrian ari dela putz
egiten,
hitz hilezkor bat, bere-berea, bere hatsa bera —
materiaren hasperena.
Ederra, gero, nola lanpararen keak gela
perfumatzen dion egunsentian.

6. Babeslekuak

“Adierazteak —dio— ez du esan nahi zerbait esatea,
baizik eta mintzatzea bakarrik; eta mintzatzeak
zeure burua erakustea esan nahi du —nola
mintzatuko zara, bada?”
Gero, haren isiltasuna hain bihurtu zen gardena

ezen errezelaren atzean ezkutatu baitzen guztiz
leihotik begiratzeko plantak egitera.
Baina, gure soa bizkarrean sumatu zuelarik,
bira eman zuen, eta aurpegia errezeletik zertxobait
atera,
tunika zuri luze bat jantzia balu bezala,
irrigarria nolabait, gure garaitik kanpokoa,
eta hori nahi (nahiago) zuen, beharbada pentsatuz
nolabait ere itzuri egiten ziola
gure susmoari, gure oldarrari, gure penari,
edo nolabaiteko aitzakia bat ematen ari zitzaigula
etorkizunean (espero zuen bezala) lilura gintzan.

8. Gaizki-ulertuak

Onartezinak dira haren anbiguotasunak; epaitu
egiten gaituzte,
eta bera ere epaitzen dute; nabarmen geratuko dira
haren nahasmena, zalantzak, ezjakintasuna,
herabetasuna,
printzipio sendoen falta. Bere konplexutasunean
katramilatu nahi gaitu, noski. Eta gugandik harago
begiratzen zuen,

nolabait eskuzabala balitz bezala, edo ulerbera
(besteek ulertzea behar duten horiek
bezala),
alkandora zuri-zuria soinean, traje gris distiratsua,
botoi-zuloan krisantemo eta guzti. Hala ere,
alde egin zuenean, zera ikusi genuen lurrean, hura
egon zen tokian:
laku txiki bat, gorri-gorria, forma ederrekoa,
Greziaren hala-holako mapa bat, munduko bolaren
miniatura bat bezalakoa,
zuriune asko eta mugak arrunt zehaztugabeak
—ia ezabatuak kolorearen uniformetasunean—;
munduko bola bat eskola zuri eta giltzatu batean,
uztail bete
eta ikaslez hustuan, zeinak joanak baitira
itsasertzeko paisaia ikusgarrietara.

10. Azken ordua

Urrin bat geratu zen haren gelan; beharbada
oroitzapena bakarrik, beharbada leiho erdi irekia
udaberriko gauerdian. Aparte utzi zituen
aldean eramango zituen gauzak. Estali zuen

ispilu handia izara batekin. Eta artean hatzetan
sentipen hura, gorputzen oreka,
eta haren boligrafoaren sentipen bakartia —
kontraesanik ez:
poesiaren bat-egite gorena. Ez zuen
inor engainatu nahi. Amaiera hurbil zuen. Berriz ere
galdetu zuen: “Esker ona, ala esker oneko
izan nahia?”. Ohe azpian, txapin
zahar eta higatuak ikusten ziren. Ez zuen gogorik
estaltzeko (o, beste noizbait, noski). Soilik
giltza txikia txalekoaren patrikan sartu zuelarik
eseri zen maletaren gainean, gelaren erdian,
bakar-bakarrik, eta negarrez hasi zen, lehen aldiz
jakinik,
ziur jakin ere, zeinen inuzentea zen.

Talos

Errepikapenak —dio—, amaigabeko errepikapenak;
ze nekea, ene!
Aldaketa oro ñabarduretan baino ez: Jason, Odiseo,
Kolkida, Troia,
Minotauroa, Talos. Eta ñabardurotan bertan
iruzur guztia, eta edertasuna, aldi berean: gure
lana.

Oraindik
gordea dut brontzezko gizakien arrazako erraldoi
haren irudia.
Zain bat zuen eztarritik orporaino; zain bat bakarrik,
brontzezko iltze batek eutsia mutur-muturrean.
Iltzea erauzitakoan,
odola eta bizia galdu zituen handik.

Eta orobat, diot,
gutako bakoitzak ere zain bakarra du, iltze batek
itxia,

eta guztiok dugu izu bera.

Bestaldean, zuriz
garbitutako horma handian,
errenkadan daude iltzeak (zainetatik aske, agian?),
handik zintzilikatzeko
berokiak, kapelak, aterkiak, galtzontzilloak eta
maskarak.

Peneloperen etsipena

Kontua ez zen ez zuela haren aurpegia ezagutu,
sutondoaren argitan; ez zen
haren eskale-jantzi zarpaildua, ezta mozorroa ere —
ez, aztarnak argiak ziren;
haren belauneko orbaina, sendotasuna, begietako
zuhurtzia. Bera, izuturik,
bizkarra horman bermatuta, aitzakia baten bila
zebilen,
lipar bateko atzerapena oraindik, ez erantzuteko,
ez salatzeko bere burua. Harengatik xahutu zituen,
hortaz, hogei urte,
hogei urte ametsetan eta zain, miserable
horrengatik,
odolez bustitako bizarzuri horrengatik? Mutu erori
zen aulkira,
astiro so eginez, lurrean, bere ezkongai erailei,
orobat hilik ikusiko balitu bezala
bere desira guztiak. Eta “ongi etorri” esan zion,
eta urruna iruditu zitzaion bere ahotsa, arrotza.
Izkinatik, ehungailuak

sare-formako itzalez betea zuen sabaia, eta txori guztiak,
hari gorriz ehunduak, diz-diz orbela berdearen gainean, bat-batean
errauts koloreko bilakatu ziren, eta beltz, itzuleraren gau hartan,
bere azken nekaldiaren zeru zapalean hegan.

Argos, Odiseoren zakurra

Nagusi, hainbeste urte falta zarela! Begira nola
nagoen hemen, baztertuta,
larreetan pilatu den simaurraren gainean. Arantzaz
eta akainez
josia dut larrua. Hainbeste urte, nagusi, eta ez dut
izan
buztana norentzat astindu. Non dira gure goiz-pasak
basoko ihintzen freskuran, non iturriak, orbela,
ehiza, luma koloretsuak
iluntzeko haizeetan? Hezur bihurtu zaizkit begiak,
zain beti.
Ez zaizkit ixten. Makarrak ere harri bihurtu zaizkit.
Jarri eskua nire belarrien artean, lasai hiltzerik izan
dezadan.

Nagusia pasatu da, ostikoa eman dio, eta gelan
sartu da.
Berehala, gezien ziztua aditu da, horman iltzatu
direnean.
Eta Argosek, han, buztana harri, begiak harri —ezin
itxi—,

simaurraren gainean hilik, ikusten du oraindik.
Lehen aldiz ikusten.

Orfeori

Uda honetan, Liraren konstelazioaren azpian,
pentsakor bizi gara.
Zertarako sorginduko ote zenituen kantuz
Hades eta Pertsefone, Euridize ostera ekar
ziezazuten?
Zeuk, zeure ahalean sinetsi gabe, atzera begiratu
zenuen, ziur egoteko,
eta makalen azpiko itzalen erreinuan desagertu zen
berriz.

Orduan, ezinezkoa saiatzeak makurturik,
liraz aldarrikatu zenuen
bakardadea zela azken egia behin betikoa. Hori ez
dizute barkatzen
jainkoek, ezta gizakiek ere. Menadeek gorputza
zatikatu zizuten
Ebros ibaiaren ur-bazterrean. Zure lira eta burua
soilik iritsi ziren Lesbosera,
korrontearen indarrez. Zertarako, bada, zure
kantua?

Beharbada noizbait (eta orduan ere itxuraz) lotu zirelako argia eta iluna?

Edo Musek zure Lira zintzilikatu zutelako izarren artean?

Konstelazio honen azpian, uda honetan, pentsakor bizi gara.

Epilogo

Bizitza; zauri bat ezerezean.

Gaua

Eukalipto altua, ilargi zabala goian.
Izar bat uretan dardarka.
Zerua zuri, zilarrezko.
Harriak, goiko haitz biluzak bezalakoak.
Ur-azalean, arrainaren jauziak
entzuten dira: bi, hiru.
Umezurtz handi eta geldiak —zoriontasuna.

18 kopla
aberri mingotsari

3. Zelata

Zelata honetan luzatu ziren gauak,
han errotu zen kantua, eta zuhaitza bezala hazi.

Eta batzuek burdin hesietan, besteek urrun,
erbestean,
mingoski diote “ai”, makal-hostoaren gisan erne den
intziria.

4. Herria

Herri txikia borrokan, ezpatarik gabe, balarik gabe,
mundu osoko ogiaren, argiaren eta kantuaren alde.

Mingainen azpian gordetzen dira intziriak eta pozak,
eta, kanturako orduan, haitzak pitzatzen dira.

6. Goiz-alba

Udaberriko goiz-alba, pozez eta bozkarioz betea,
non da begirik zu ikusteko, zuri ongi etorria
emateko?

Bi ikatz intsentsu artean, eta bi intsentsu apur;
kezko gurutze bat aberriaren ateburuan.

10. Ura

Urria haitzetako ura, bedeinkatua isiltasunean,
txoriaren zelatan eta heriotzorriaren itzalean.

Ezkutuan du gerrillariak edaten, eta lepoa altxatzen,
txolarreen antzera, bedeinkatzeko Grezia, bere ama
gaixoa.

12. Neska argalak

Neska argalak gatza biltzen ari dira itsasertzean,
uzkurtuta oso, mingostuta, itsasoa ikusi ere egin
gabe.

Eta bela bat, bela zuri bat agurka dute zerutik,
eta, ez baitute ikusi, saminez belztu da.

14. Hilobiaren gainean

Palikaria burua tente zuela erori zen;
ez du estali lur hezeak, ez du ukitu ezein zizarek.

Hego bat bezala bizkarrean, gurutzea hegaldatu
egin da,
bat egitera arranoekin eta aingeru urrezkoekin.

Egiazko eskuak

Arrasti batez, azalpenik eman gabe alde egin zuen (agian
eraman egin zuten), sukaldeko mahaian utzita
artilezko eskularruak, bi esku moztu bezalakoak,
odolik gabeak, kexarik gabeak, bareak, edo are,
haren eskuak bezalakoxeak, pixka bat puztuak, pazientzia
antzinako baten aire epelaz beteak. Han,
artilezko hatz laxoen artean,
ogi kozkorren bat jartzen zuen lantzean behin, loreren bat,
edo etxeko ardoaren basokada bat, lasai jakinik
eskularruak behintzat ezin direla bilurtu.

Artearen esanahia

Hubert Juinentzat

Orduak eman zituen estatuaren esku moztuari so —
esku bat bakarrik,
keinu isil batean geldirik, gorputza osorik
berreraiki nahian. Beharbada argitzeko
hark ere argitu behar ez zukeen sekretua. Gainera,
nork argituko zuen, eta nola? Poesia —esan zuen—
beti hasten da hitzen aurretik, edo atzetik. Orduan
ikusi genuen txoria; esku moztutik atera zen, eta
ogian eseri.

Bakarrik

Ezin dut gehiago plantarik egin —dio—;
aulkiak, jendea, nire umeak, nire zigarretak,
heriotza da, heriotza zarete, heriotza naiz.
Kafe-platertxoan erdibitu dut zotz zikina;
heriotza da, begira dut, begira nauka —heriotza
bakarrik;
geranioak loreontzian, kanarioak kaiolan
—ezer entzun gabe—, korridorea, keroseno-lanpara,
argazki zaharrak paretan, aterki beltzak,
ur mutua zeruaren azpian. Badoa etxea,
maizterrekin eta diban beltzarekin batera;
badoa etxea, desagertzen, desagertua... nora doa?

Gautu du

Amaitu da arratseko festa ere.
Eta inola ere ez dakigu
zer deitoratzen zuten, zer ospatzen.
Halako batean, argiak piztu dira, eta itzali.
Leihotik ikusi ditugu musikariak;
isilik zeharkatu dute etorbidea,
bizkarrean harturik
brontzezko instrumentu eskergak.
Gera zaitez, beraz, hemen,
erre ezazu zigarreta
sosegu handi honetan,
ametsezko deus-ez honetan.
Gor-mutuak estatuak.
Gor-mutuak orobat poemak. Gautu du.

Gauza bera

Hustu dituzte etxeak eta zuhaitzak. Txoriek
ez dute non pausatu. Egun osoan
saltzaile ibiltariak igarotzen dira. Ezagutzen ditugu.
Sasi-ehunak, sasi-bitxiak.
Badoaz iluntzean. Ezer saldu gabe. Eta, halere,
kanpoan, hondartzara bidean, argiak pizten
direnean,
kale-zakur basatien aldra handi bat
borrokan ari da oraindik hezur batengatik.

Kanpaiaren hotsa

Argiak piztuta harrapatu gaitu goiz-albak.
Okrea, zeru-urdin doi batekin nahasirik.
Beheko sua, eltzea, kafea,
denboraren usaina, karta barreiatuak,
eta zigarrokinez betetako hautsontziak.
Emakumeak, gizonak, lorategiak, liburuak
etorri dira, joan dira, galdu dira. Eta kanpai hura,
goizean aditu dena, ez zen postariarena,
baizik eta hiltegira daramaten antxume gaixoarena.

Azken denbora-pasa

Gortinaren dardarak bigarren aurpegia ezkutatu du.
Lurrean barreiaturik pistatxo-azalak,
eta hiru txapin zahar eta leun.
Aulkiaren gainean, jertse gorria. Egia,
zenbat eta zenbat maskara aldatu dituzun. Orain
banan-banan botatzen dituzu surtara, eta denbora-
pasa zaude
garrei begira, nola argitzen dituzten zure esku
hutsak.

Iltzeak

Alferrik dago hemengo hau, eta hura, eta bestea.
Hil da zakurra, hil da zaldia.
Balde hutsa eskaileren azpian.
Arrainketariak kaletik deika.
Etxea oihartzun huts bat da, eta ispiluan
gurutziltzatu zurbilak
zekenkeriaz estutzen ditu ukabiletan
bere bi iltzeak.

Epaia

Batzuk etorbidea zeharkatzen ari ziren
bitrinen aurrean geratu ere egin gabe. Besteak
nekatuta zetozen hiletatik,
ohi baino askoz ere beroki luzeagoekin.
Patrikan zuten oraindik ogi-kozkor erdia,
defuntuen oroigarri, jan gabe, zain,
inor begira ez zutenean jaurtitzeko
lehen kale-kantoi bakartian. Behean,
emakume dolutuak banaka jasotzen zituen, bereak
balitu bezala,
bizirik geratu zirenen Azken Epairako.

Amaieran

Ordua baino lehen alde eginak ziren musikariak.
Nota batzuk
dardarka zeuden oraindik ispilu handian. Bi otseinek
armiarma-zutargiak itzali zituzten. Etxeko nagusia
besaulkitik altxatu zen, isilik, damututa.
Banan-banan zenbatu zituen atrilak, behatzekin
haztatuz,
ziurtatu beharko balu bezala
ez zela bat ere falta. Geratu egin zen pixka batez
suizidaren ganbera itxiaren atean. Gero
“Jack, Jack” hots egin zion zakurrari. Jack
sartu egin zen, iletsu eta erraldoi, lehoi bat
bezalakoa.
Sokaz lotu, eta lorategira eraman zuen, libra zedin.
Gauerdia joana zen, eta oraindik ez ziren itzuli.
Andrea balkoira irten zen. Han zen ilargia.

Nekearen aldiak

Trenaren ke barea iluntze gorrikaran.
Emakume zaharra eserita dago atean, kanario-kaiola batekin;
Santa Barbararen eskaileretako itsuaren akordeoiari adi dago.
Ez genuen aitzakiarik gaurko,
ezta biharko ere. Izenak
ez zitzaizkien gauzei egokitzen gehiago.
Jaberik gabeko zakurrak alderrai dabiltza auzunean. Iluntzean
gizendu eta makurtu egiten dira etxeak eta zuhaitzak eta pertsonak
neke jasanezinen baten pean. Duela 50 urte, neke berak
sorbalda bakarrean altxa zezakeen
tximeleta txiki bat.

Euriaren orduan

Kometa zahar urratuak lokarrietatik zintzilik daude
zuhaitz biluzietan, eta telegrafoaren kordek
kirrinka egiten dute haizean. Bat-batean,
euria indartsu erori da, eta fruta saltzaile gazteak
aterki beltz handi bat ireki du fruta-gurdiaren
gainean
laranjak babesteko. Lehia hori,
laranja urrekaren eta aterki beltzaren artekoa,
euriaren zaratari gehitu zaio, eta aberatsagoa da
munduaren edertasun ilun eta esplikaezina.

Uneak

Haur triste miopea eserita dago atarian
urrunean jolasean dabiltzan haurrei so. Haren betaurrekoak
bi leiho txiki eta biribil dira
itsasora irekita. Belaontzi zuri bat
bereizezin pasatzen da behe-lainotik. Begira moilan
pailazo txiki hori, sudurrean plastilinazko bola bat duela,
eta masailetan bi malko margotu. Ikusten?
Baina zergatik zaude negarrez? Barre egin zenezan esan dizut.

Poemak ere

Zein polito lerratzen diren zuhaitzak muino-
gainetan.
Maiatzak berdez janzten du leku hura. Zuhaitzen
gibelean
etxetxo zuriak berriketan ari dira
gauza zuri eta bareei buruz: itsasontzien arribadak,
udatiarren iritsierak, txorienak, maiteminduenak.
“Ni ere —esan zuen—
banoa, banoa”. Eta poemak ere
itxi du ahoa klarionezko gurutze batekin.

Txalupa beltza

Zaharra eserita dago sarreran. Gaua. Bakarrik.
Sagar bat du eskuan. Besteek
izarren esku utzi dute haien bizitza.
Zer esango diezu? Gaua gau da.
Eta zerk segituko dion ere ez dakigu. Ilargiak
dibertitzeko plantak egiten ditu
etengabe txinpartaka itsasoari. Halere,
errainu-dantza honen erdian, klaru bereizten da
bi arrauneko ontzi beltza, eta txaluparia, urruntzen.